

XXXXX

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

. @@@/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2011. urteko Enplegu Publikoko Eskaintzan A taldean eskainitako destinoen kopurua argitaratzen duena.@@@

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenean (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutario finkoa izateko hautatze-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartzen dituena), 1. atalean ezartzen da hautatze-prozesu bakoitzeko destinoak zeintzuk izango diren eta destino horiek hautatze-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik eskainiko direla.

Kontuan harturik, egungo prozesuaren garapena, A taldean eskainitako destinoen kopurua argitaratuko da nahiz eta beste argitarapen batzuk egon aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzeko.

1.1.1 atalean –deialdiaren xede diren destinoak– xedatutakoari jarraiki, destino hauek aldatu egin ahal izango dira kopuruz eta ezaugarritz, 2011. urtean deitutako lekualdatze-lehiaketaren arabera.

Aurreko paragrafoa eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera hutsik geratzen diren destinoak kontuan harturik, deialdia amaitzean 2600 lanpostu aurreikusten dira.

Esandako guztiagatik, indarrean dagoen legediak pertsonal gaietan ematen dizkidan ahalmenez baliaturik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Eskaintzen diren A taldeko–kategoria/lanpostu funtzionalka– destinoen zerrenda argitaratzea, Ebazpen honetan.

Bigarrena.- Destinoen zerrenda desglosatu hori, dagokion kategoriako azken puntuazioaren araberako izangaien zerrendan sartuko da (IV. Eranskinean).

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997



Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak

	DESTINO KOPURUA Nº DESTINOS
A TITULAZIO TALDEA / GRUPO TITULACION A:	635
A 1. Facultatibo mediko eta teknikoak / A 1. Facultativos Médicos y Técnicos.....	635
- Fak. Esp. Mediku / Fac. Esp. Médico.....	613
- Fak. Esp. Mediku Teknikaria / Fac. Esp. Médico Técnico.....	14
- Fak. Esp. Psicológo-Kliniko Teknikaria / Fac. Esp. Técnico Psicológo Clínico	8

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 8an

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia

JON ETXEBERRIA CRUZ




Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL